

FUNTSEZKO SOZIETATEAK

Gure enpresan funtzio garrantzitsuen ardura guk hartuko ditugu hasieran beintzat. Gure gaitasunak kontuak izanda hauek izango dira gure ardurak:

-Fernando: Arrantza zalea da eta gai honi buruz esperientzia geien duena. Berak aktibitateak diseinatu eta ikastaroak prestatu ditu, horretarako material egokia aukeratu eta irakasle profesionalak kontratatuko ditu.

-Igor: Gure ekologia arduraduna izango da, ekosistema eta espezieak babesten dugula kontrolatuko da.

-Juan: Kontabilitateaz arduratuko da, kontuetan aditua da eta pertsona antolatua da.

-Asier: Community manager. Berak erakundearen eta bere publikoaren arteko lotura gisa jarduten du. Markaren ahots, tonu eta moderatzaile gisa jarduten du komunitatearen laguntzaren, edukien banaketaren eta konpromiso digitalaren bidez, markaren presentzia eta konfiantza sortzeko, bai linean bai pertsonalki.

-Aritz: Giza baliabideen arduraduna izango da. Gure langileak hautatu eta kontratatuko ditu.

Proiektu handia denez hainbat eragileekin itunak izango ditugu:

1.- Langileak

- Arrantzan eta itsaso/ibaietan profesionalak eta adituak , ikastaroak emateko, jarduera bereziak..., arrainak zaintzeko pertsonak kontratatuko ditugu (2 pertsona min)
- Monitoreak à KURKUDI.SA enpresa azpikontratatu dugu
- Mantenimendurako langileak kontratatuko ditugu
- Zaintzaileak , langileak kobratzeko , informazio guneetan egoteko...
- Informatikariak kontratatuko ditugu , web-gune sortzen dakitena

2.- Eusko Jaurlaritzara à Proiektua garatzeko eta finantzatzeko Eusko Jaurlaritzarekin akordio /proiektu bat adostuko dugu , bereziki inbertsioa eta diru-laguntzak lortzeko

3.- Hornitzailea

- Arrainen janaria ekoizten duten enpresa behar dugu parkean ditugun arrainak jaten emateko.
- Arrantza egiteko kainaberak ekoizten duen enpresa, gure parkean arrantzatzeko gailuak behar ditugulako.
- Parkean eraikitzeko eta mantentzeko beharrezkoak diren hornitzaile eta enpresa guztia

4.- Ureko animaliak babesten duten erakundeak parkean emango ditugun informazio eta hitzaldi ingurumenaren babesaren alderi buruzko informazio ona emateko.

5.- Itsasontziak behar baditugu, paseoak eskaintzeko edo arrantza egiteko bertatik, azpikontratatu ahal dugu enpresaren bat TAHO RENTAL. SA

